



Lur azpiko komedia eta komeriak.- Udaran egin beharreko antzerkia zen Entre Lombrices, baina bertan behera geratu zen erauntsi handia bota zuelako antzerkia hasi baino hamar minutu lehenago. Bigarren ordea, lortu dute antzerkia Okendo plazara eraman eta herritarren aurrean aurkeztea. Gaztelera hutsezko antzerkia izan zen ostiral gauekoa, batez ere ikusle gaztetxoak bildu zituen eta umorea izan zuen ardatz. Umore beltza. Izan ere, heriotzaren inguruan hitz egin zuten, baina gertuko tonu eta denetarik eszenografia erabiliz, hilkutxa itxurako etxekoak, maitasuna behar dutela esaten zuten kartelak, cowboy kapelak, ehorztaileen palak... Oro har Algaraka entzun eta ikusteko moduko antzerkia izan zen, baina tarte batzuetan hausnarketarako beta ematen zuten hitzek pentsakor jarri zuten bat baino gehiago. Bitxikeria gisa, antzerkia egon zirenek ezin izan zuten amaiera ikusi eta Internet bidez emango zutela esan zirelako, entrelombrices.com atarian hain zuzen.

4 KULTURA Euskal Jaia berreskuratu nahiean

Lasarte-Oriako hainbat elkar-tek elkarlanean antolatuta, urriaren 19an Euskal Jaia ospatuko da Okendo plazan. Jai egun berezi honetan herritarrek baserriar jantziarekin kalera ateratzera animatu nahi dituzte antolatzaileek. Garai bateko Euskal Jaia berripiztea da asmoa.



5 UDALA Udaletxearen aurkezpen ofiziala egin dute

Ostiralean ekitaldi xumea egin zuen Udalak eta Emozioen Hormara esaldi gehiago gehitu zituzten Pablo Barrio gidari izan zuen ekintza sortan. Musikak presentzia handia izan zuen Antonio Mercero plazatik egoitzak duen sarreran eta bisita gidatuak ere izan ziren.

6 KIROLA Iñaki Egaña eta Santi Garcaren X. Oroimenezkoa

Parte-hartze handia izan zen Michelingo kirolgunean igande eguerdian jokatu zen bolo txapelketan. Guztira 28 bolari aritu ziren nor baino nor, hiru kategoriatan banatuta: Gipuzkoa mailako txapelketa, Lasarte-Oriako eta emakumezkoena. Denetan onena Antonio Goenaga izan zen.

Zitek

**HOBETU NAHI?
LAGUNTZA KLASEAK**

**Zientziak eta hizkuntzak
Ikasteko teknikak**

Goikale 12 behea • 20160 Lasarte-Oria
www.zitek-akademia.com

Bideo Lagunak
TIEEN 21
Etxekotesna elektrikoetan

Semana del AHORRO
en PAE (Pequeño Aparato Electrodoméstico)
del 23 al 28 de Septiembre

Eskaintza gehiago Facebook-ean. Jarrai gaitzazu!

Me gusta

-25% -10% -20% -15% -20% -25% -20% -15% -25%

Adituak dio

Talaiatik



Iñigo Gonzalez

Lasarte-Oria Zero Zabor

Lehentasun kontua

Esan ziguten 2012ko abenduaren 21ean bukatuko zela mundua. Oraindik hemen gaude. 2013ko irailean irakurtzen ari zarete hau. Eta, dena aurreikusi bezala joango balitz, datorren urtean hasiko lirakeke erretzen Zubietako errauste plantan artikularen egilearen eta gipuzkoarren zaborra. Baina miraririk gertatu ezean, ez dirudi hala izango denik. Eta eskerrak.

Joan den uztailean eten zuen Zubietako errauste planta eraikitze-ko agindua GHK Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak, Ingurumen Baimen Bateratua betetzen ez zuela eta. Garbiago ulertzen da adibide batekin: proiektuaren sustatzaileek aipatu zuten zaborra erre eta gero geratzen diren hondakin kutsakorrek tratatzeko azpiegitura eraikiko zutelara, baina gero proiektutik at utzi zuten. Irregularitasun gehiago ere topatu ditu GHK erakundeak.

Hala ere, askoz lehenago itzali zituzten motorrak Zubietara joandako makinek. 2011n ezarri zion Bilduk moratoria errauste plantaren eraikitze lanei. Eta proiektua atzeratzea erabaki zuten, sinesten zutelako alternatiba sendo batetan. Atez ateko sistemak. Hautsak hainbeste harrotu dituen sistemak.

Gipuzkoako hainbat herrik egin dute apustu sistema horren alde. Azkenetakoa, Oñati. Labetik atera berri dituzte azken bi hilabeteetako datuak. Hondakinak atez ate biltzen hasi direnetik, zaborraren %80 birziklatzea iritsi dira. Sistemaz aldatu aurretik, %25. Batzuk kexatuko dira; esango dute itsusiagoak direla Oñatiko kaleak orain. Baina herriak hiru bider hondakin gehiago birziklatzen du. Lehentasun kontua.

Aurrera pausua?

Azken urteetan askotan jaso behar izan dugu orrialde hauetan Zubietako errauskailuaren afera. Afera diot oraindik luzerako emango duen gaia izango delako ziurrenik. Gurean, TXINTXARRIN, aldeko eta kontrako iritziak jaso ditugu urte guzti hauetan. Gure kaleetan egin diren manifestazioak eta bestelako egitasmoak, dantzak, bizikleta martxak, ibilaldiak...

Iritzi artikulua eta eskutitz andana iritsi dira erredakziora. Tartean jaiotzen ikusi ditugu Lasarte-Oria Bizirik, Lasarte-Oria Zero Zabor herritarrek osatutako plataformak... lasarteoriatarrek honen aurrean, beste gai batzuekin ez bezala, mobilizatu eta kalera atera dira euren iritzia agertzeko. Gaiaren inguruan antolatutako hitzaldiak ere jendetsuak izan dira beti.

Orain lanak geldituta daude eta hilabete luzeak pasako dira hain gertu gelditzen zaizkigun lur horien etorkizuna zein izango den jakiteko.

Ibilbide honetan gogora ekarri nahi izan dugu 2006. urteko manifestazio hura. Orduan ere, alde, kontra eta Zubietan zehazki kokatzearen aurka azaldu zen jendea. Tartean, herritarren iritzia ere jaso nahi izan dugu zabor biltzaren kontua pil-pilean dagoen honetan.

Eztabaida, gauzak nahasten ari direla diote gehien bat, jendeak ez daki zer den zaborraren egin behar dena edo biltza sistema hobereana zein den. Hala ere, birziklatzearen aldeko apustua argia dela dirudi eta hori aurrera pausu bat da, duela ia hamar urte agian hain beharrezkoa ikusten ez zen pausua.

Hitz eta pitz

Errauskailua eraikitzearen alde zaude?



Juanjo Martin

Errauskailua ez dakit eraiki behar den baina bai uste dut zaborraren arazo handi bat dela eta nolabait konpondu behar dugula. Zalaparta handia dago ere zabor biltza sistema egokienaren inguruan eta egia esan gauzak nahasten ari direla iruditzen zait. Argi daukat berziklatu behar dugula eta zaborraren arazoari lehen bait lehen irtenbide bat eman.



Pilar Beldarrain

Errauskailua ez dugu behar hemen ezertarako. Saiatu behar gara oso ondo berziklatzen eta horrela ez dugu halakorik beharko. Ondo ikusten dut behintzat momentuz errauskailuaren eraikuntza lanak geldituta egotea. Danon esku dago behar bezala zaborra berziklatzea eta hori izan beharko luke irtenbidea halakoak eraiki behar ez izateko.



Julia Rodriguez

Argi dago zaborra sortzen jarraituko dugula eta horrekin zerbait egin behar dela, nolabait kudeatu behar da. Niri berdin zait errauskailua eraikitzea ala ez baina bere garaian irtenbide hori erabaki bazuten agian egokiena delako izan zen. Alde edo kontra egon arren, erabakia hartuta bazegoen ez dakit zergatik sortu den hainbeste-ko eztabaida jendearen artean ere.



Ixiar Camarero

Errauskailua eraikitzea ez dugu nahi baina hondakinen arazoa larria dela iruditzen zait eta hauekin zerbait egin beharko da. Orain lanak gelditu dituzte eta niri ondo iruditzen zait, ez dut nahi errauskailua, baina azkenean erabaki bat hartu beharko dute erakundeek. Zaborra ez da gutxituko eta arazoari irtenbide bat ahalik eta lasterren bilatu beharko diotela iruditzen zait.

Iruditan



2006an manifestazio jendetsua egin zen herriko kaleetan errauskailuaren kontra azaltzeko.

Mobilizazioak

Ondoren hainbat ekimen egin badira ere, herrian 2006. urtean azaroren 25ean Lasarte-Oria Bizirik eta Zubietan Lantzen plataformek deituriko manifestazio jendetsua egin zen proiektuaren aurka. Herriko kaleetan milaka lagun batu ziren orduan jaso zen bezala. Manifestazio hartan herriko Ana Urchueguia alkateak parte hartu zuen baita hainbat zinegotzik ere. Hain zuzen Zubietan ez! leloa zerman pankartaren atzean ibilbidea egitea erabaki zuten. Modu honetara Zubietan ez baina errausketa sistemaren alde zeudela agertu nahi izan zuten.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Ezzagire, Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Aruti, Asier Odriozola, Ione M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

UDALA

Anitzen sarea aurkeztu zuen Lasarte-Oriako Udalak

Ostiralean, Worldkafe ekimena izango da Okendo plazan

Lasarte-Oriako Udalak Aztiker enpresaren laguntzaz "Anitzen sarea" jarri du martxan. Proiektu honen bitartez Lasarte-Oriako kultur aniztasuna landu eta aztertu nahi du Udalak. Honen barruan, ostiralean Worldkafe ekimena egingo da Okendo Plazan eta abenduan, Aniztasunaren astea.



Udal ordezkariak eta Aztikerreko teknikariak aurkezpenean.

TXINTXARRI

Ostiral eguerdian, Pablo Barrio alkateak, Gorka Lizarraga Gizarte-Zerbitzu eta Aztiker enpresako, Markel Ormazabal eta Arkaitz Martinez de Albeniz teknikariak "Anitzen Sarea" aurkeztu zuten.

Prentsaurrekoan alkateak azaldu moduan, "Lasarte-Oriak gaur egun duen ezaugarri nagusia aniztasuna da".

Horregatik, "aurrera begirako elkarbizitzan onurak ekar ditzan" kultura guzti hauen ezagutzea sakondu eta lan egitea beharrezkoa dela adierazi zuen.

Lan hori egiteko Udalak "Anitzen sarea" aurkeztu eta hau osatzeko hiru hilabeteko lanbetea egingo dela jakitera eman zuen.

Worldkafea

Aztiker enpresako Markel

Ormazabal azaldutakoaren arabera, proiektuak bi atal izango ditu.

Lehenengoan, herriko diagnostika osatu eta aniztasuna sustatzen jarraitzeko proiektuak hausnartuko da.

Honen harira, aste hauetan 33 elkartekin elkarriketak egin direla azpimarratu zuen eta irailaren 27an, ostirala, 18:00etan Okendo plazan hitzordu garrantzitsua egingo dela ere esan zuen, Worldkafea hain zuzen.

Bilkura lasarteoriatar guztiei irekia dago eta bertan "Anitzen sarea" proiektua eta prozesua aurkezteaz gain, diagnostika osatzen jarraituko dute.

Horretarako, herritarrek talde desberdinetan banatuko dituzte. "Herritar bakoitzaren bizipen eta iritzia trukaketa

gauzatu nahi dugu giro goxoa kafe baten bueltan" adierazi zuen Aztikerreko teknikariak.

Aniztasun astea

Bigarren fasean, berriz, elkarrekin batera abenduan antolatuko nahi den Aniztasunaren astea diseinatu dela adierazi dute, abenduaren 16tik 21era hain zuzen.

Horretarako elkarrekin bilera itxiak egingo dira urria eta azaroan.

Lasarte-Oriako Udalak eta Aztiker enpresak "gure herriko jatorri eta kulturen arteko harremanetaz hitz egin, entzun, sentitu, hausnartu eta amestu" nahi duen herritar orori gonbita egiten diote ostiralean Okendo plazan egon dadin, "aulki eta kafea izango duzue zain".

JAIALDIA

Maskotaren eguna

Lasarte-Oriako maskotek bere eguna ospatzeko aukera izango dute hurrengo larunbatean Atsobakar auzoko parkean.

Arratsaldeko 16:00etan Lasarte-Oriako erdialdetik atera eta txakurrekin paseoa egingo da Atsobakarreko parkeraino. Bertan, maskoten lehiaketa izango da.

Jaialdiari amaiera emateko, Cani Sapiens-ek txakur obezitatea erakusteko egingo du.



GAZTERIA

Gazte ikastaroak urritik aurrera

Gaztea sailak urritik aurrera Gaztelekuan eskainiko dituen ikastaroak aurkeztu ditu.

Ikastaroak bi ataletan banatzen dira. Batetik urritik abendura eskainiko diren ikastaroak daude, serigrafia, gitara elektrikoa eta zumba eta bestetik, egun bateko ikastaroak ere antolatuko dira. Hauek kapoeira, magia, amigurami, aurpegiko masaia, akrobazioa, beat box-a, henna tatuajeak eta globoflexia dira.

Ikastaro guztiak arratsaldeko 18:00etatik aurrera egingo dira eta doanekoak dira. Ikastaroei buruzko informazio gehiago nahiez gero, lasarteoriasarean.eu orrialdean eskuratu daiteke.

Hauetan parte hartzeko izena eman behar dela adierazi du Gazteria sailak, "bertaratuko den jende kopurua zein den kalkulatzeko".

Horretarako, Gaztelekuko Informazio Bulegora gerturatu daitezke gazteak astelehenean ostiralean 12:00etatik 21:30etara edo gazteinfo@lasarte-oria.org helbidera mezua bidali. Honetan, zure izena abizena eta ikastaroa zehaztu behar dira. Izena emate urriaren 4an amaituko da.

DANTZA

Plaza dantza ikastaroa hastear

Ttaku kultur elkarteak eskaintzen duen plaza dantza edo muxiko ikastaroa urriaren 1ean, astearte, hasiko da.

Irakaslea aurreko urteetan legez, Dabid Egizabal izango da. Saiok asteartean 20:00etatik 21:30era izango dira Sasoeta ikastetxeko soinketa gelan.

KULTURA

Alboka Txikiren ikasturte hasiera

Alboka Txiki abesbatzak urriaren 1ean, astearte, arratsaldeko 18:00etan hasiko ditu entseguak, Arantzazuko amaren eliza azpiko lokalean.

6 eta 16 urte arteko haur eta gaztetxoek zuzendutako jardura da. Honen bitartez Alboka abesbatzak harrobi lan-tzeaz gain, musika gogoko duten Lasarte-Oriako haurrei ekin-tza hezigarri eta sortzailean parte hartzeko aukera ematen die.

Honetaz gain, gaur egungo eta betiko euskal doinu tradiziozko edo atzerriko abestiak landuko dituzte.

Alboka Abesbatzak herriko haur eta gaztetxoak gonbidatu nahi ditu lehen entsegu honetara. "Ez da beharrezkoa musika jakitea. Abestiak belariz ikasten dira adin hauetan."

Alboka Txiki abesbatza abestu edo informazio gehiago eskuratu nahi duten herritarrek 678 397 334 telefono zenbakira deitu edo alboka@albokaabesbatza.com helbidera bidali dituzketeko mezuak.

DIRU-LAGUNTZAK

Kultura eta Hezkuntza oinarriak

Lasarte-Oriako Udalak eskaintzen dituen kultura, zein hezkuntza arloko diru-laguntzen oinarriak argitaratu dira Gipuzkoako Aldizkari ofizialean. Jardura kulturalen programei eta eskola-orduz kanpoko jardura hezigarrien programei diru-laguntzak emateko oinarriak dira, hain zuzen, aurkeztu direnak.

Era honetara, kultura arloko dirulaguntzetan 9.070 euro banatuko dira. Hauek jardura edo programa kulturalen garapena bultzatzera daude zuzendutako eta Lasarte-Oriaren sustapen eta zabalkunde kulturalaren esparruan interes orokorreko jarduraren bat egiten duten elkarteak eskatu ahaliko dute.

Eskola-orduz kanpoko jardurei dagokionez, 7.494 euro banatuko dira. Hauek Lasarte-Oriako ikastetxeetako guraso elkarteek zuzendutako dira.

Diru-laguntzen eskabideak Lasarte-Oriako udalaren erregistroan aurkeztu behar dira urriaren 23a baino lehen.



Bigarren eskuko azoka Mugikortasun Astearen barnean.- Denetarik izan da hiru egun iraun dituen Mugikortasun Astearen barnean, batez ere txikienentzat. Baina bigarren eskuko azoka bat ere jarri zuten Okendo herritarrek etxean erabilerarik ematen ez zieten triziklo, bizikleta, patinete eta halakoak elkartrukatu eta tratua egiteko. Dozenaka bizikleta jarri ziren ikusgai eta bakarren batek jabea ere topatu zuen.

Euskal Jaia berpiztu nahian

■ Euskal jaia urriaren 19an ospatuko da herriko hainbat elkartek elkarlanean antolatuta

Urriaren 19an Euskal Jaia ospatuko da Okendo plazan. Herriko hainbat elkartek sustatuta antolatuko da jai egun berezi hau eta herritarrek baserriar jantziarekin kalera ateratzera animatu nahi dituzte. Garai bateko Euskal Jaia berpiztea da asmoa. 1927. urtean izan ziren Lasarte eta Zubietan Euskal Jaia, bigarrena Biyak Bat elkartek antolatuta ere.

Egun Donostia eta Zarautzeko Euskal Jaia dira denontzat ezagunenak baina XX. mende hasieran herri eta auzo askotan ospatzen ziren. Euskal Jaia Euskal Pizkundera mugimendu euskaltzalearen inguruan sortu ziren. Korronte hartan ere kokatu behar dira 1927. urtean Zubietan eta Lasarten ospatutako Euskal Jaia.

Ez da asko jaien inguruan aurki daitekeen informazioa hortaz, ezin zehaztu zenbat urtetan izan ziren Lasarteko kaleetan. Hori bai, 1927. urtean irailaren 9an Lasarten ospatu ziren, ondoren Michelin fabrika kokatu zen lur saillean, eta 1927. urteko urriaren 2an Zubietan Lasarteko Biyak Bat herriko lehenengo elkarteak antolatuta.

Egitaraua

Euskal Jaian herritarrek baserriar jantzia janzen zuten eta jai giroan, euskal dantza erakustaldiak eta herri kirolak antolatzen ziren. Euskal Ezkontza ere egin zuten Lasartekoan gurdia eta guzti argazkiez esker jakin dezakegunez.

Biyak Batek Zubietan antolatutakoaren egitarau osoa iritsi zaigu ordea.

1927. urteko urriaren 2an goizeko zortzietan ekin zitzaion festari. Ordu horretan Oriatik eta danbolinarekin doinuek lagunduta, erromerian Zubietaraino joateko aukera izan zuten herritarrek. Hara iritsita, goizeko bederatzietan Meza Nagusia egin zuten Zubietako abesbatzak girotua. Jarraian tiro txapelketa egin zuten, honetan izena ematea

aurrez egin behar zuten parte hartzaileek, gehienez 60 onartu ziren eta bi pezeta ordaindu zituzten.

Pilota partida egin zuten elkarteko bikotea Zubietako bikote baten aurka. Ondoren Atletico Lasartearrako kideek aureskuia dantzatu zuten eta hiruretan erromeriari hasiera eman zioten. Bitartean toka eta bolo txapelketa jokatzeko aukera izan zuten, hauetan parte hartzeko egunean bertan izena emateko aukera eman zuen elkarteak eta bi pezeta ordaindu behar izan zuten parte hartzaileek bolutan aritzeko eta bat tokan jokatzeko.

Lauretan Oriako Sorgin Dantza ikusteko aukera izan zuten eta jarraian herri kirolak, harri jasotzaileak Jose Miguel Arruti eta Oriako Egaña izan ziren. Arratsaldeko seietan Biyak Bateko abesbatzaren emanaldia izan zen eta txalapartariei tartea egin zitzaion honen baitan. Kontutan izan behar da 60. hamarkada arte ez zela berriro gizarteratu Arzetarren ekimenez Ez dok Amairuren ekintzen baitan txalaparta Zuaznabar anaiekin.

Azkenik, Lasartera abiatu eta dantzaldiarekin festari amaiera emateko aukera izan zen gaueko hamarrak bitartean.

Euskal pizkundera

Euskal Pizkundera edo ondoren lehenengo Pizkundera bezala ezagutu dena, euskal literaturak bizi zuen garai emankorri deitu zaio, garai hau XIX. mendeko bigarren erdialdetik XX. mendeko



Lasarteko Euskal Jaia ondoren Michelin fabrika egin zen zelaian ospatu zen, bertan Euskal Ezkontza anteztatu zuten. ARTXIBO GALARDI

lehen erdialdera arte luzatu zen. Mugimendu euskaltzalea Hegoaldeko lurraldeetan gerra karlistak galdu eta foruak deuseztatu zireneko galera sentimenduarekin dago lotuta, erromantizismoaren eraginarekin.

Euskal gizartearen sortutako mugimendu hau ordea bi gertakarik mugatu zuten, lehenengo Hirugarren Gerra Karlista eta ondoren, Espainiako Gerra Zibila, 1876tik 1936 arte iraun zuen Hego Euskal Herriaren kasuan. Mugimendua kulturala eta politikoa izan zen abertzaletasuna sortu zen orduan ere.

Giro horretan Euskal Herriko hiri eta herrietan, Antton Abadiak sustatutako lehenengo Lore Jokoekin harreman duta, Euskal Jaia antolatzen hasi ziren. Lasarteko euskaltzaleek, giro hartan antolatu zituzten 1927. urteko Euskal Jaia.

Euskal festak hipodromoan

Hala ere, herritar askoren gogoan dago ondoren erromeriarrek kalera atera eta euskal dantza ikuskizunez gozatu izana.

1950. hamarkadako hainbat dantzari irudi Euskal Jaia titulupean izendatzen dira baina ezin daiteke zehaztu benetan Euskal Jaia



Biyak Bateko kideak baserriarrez jantzita Zubietako Euskal Jaian. ARTXIBO GALARDI

ziren ala bestelako jai edo ospakizunak.


Iturri ezberdinek adierazi moduan, dirudienez, edozein aitzakia ona zen herritar batzuentzat jaia edota festak plazan antolatzeko. Askotan diru bilketak egiteko aitzakia ziren festak eta hauen baitan euskal dantza erakustaldia antolatzea ohikoa zen.

Bestalde, hipodromoan Euskal Jaia antzekoak antolatu zituen Donostiako urteetan.

Herritar batzuk aipatzen dutenez karroza ederrak ikusten ziren egun horretan eta lasartearekin ohitura zuten festa baserriarrez jantzia joate, batez ere haur eta gaztetxoak. Hala ere, Euskal festa baino, udaberriko edo udako festa izenez ezagutzen zirela gogoan dute.



Biyak Batek 1927. urtean antolatutako Euskal Jaiko egitaraua. ARTXIBO GALARDI



Pizzeria Bar Jatetxea
Rummy

Etxean egindako masak

Eguneko menua
Pizzak
Hanburesak
Pintxoak

Astebukaerako
MENUAK
erakargarriak prezio onean

Taldeentzako menuak

Kale Nagusia 71
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 245565

BOLA-JOKOA.

Martin Egaña eta Santi Garciaren omenez

Goenagak irabazi du probintzia mailakoa, Montesek herrikoa eta Santosek emakumezkoena

Parte-hartze handia izan zen Michelingo kirolgunean igande eguerdian jokatu zen bolo txapelketan. Guztira 28 bolari aritu ziren nor baino nor, hiru kategoriatan banatuta: Gipuzkoa mailako txapelketa, Lasarte-Oriakoa eta emakumezkoena. Herritarrek bakarrik ez, Zerain, Segura, Olaberria, Hernani, Donostia eta Urrietako jendea ere hurbildu zen Santi eta Martinen omenez egiten den txapelketara, aurtan hamargarren aldiz.

JON ALTUNA EGITEGI

Bola jokoak tradizio handia izan du betidanik Lasarte-Orian, horren erakusgarri da urtea joan eta urtea etorri Egaña eta Garciaren oroimenekoan biltzen den bolari kopuru altua.

Probintzia mailako txapelketan Antonio Goenaga altzarra irten zen garaile, zortzi jaurtialditan 49 birla botata. Bigarren Miguel Burugain geratu zen, birla bat gutxiago botata.

Hirugarren eta laugarren postuetarako desentpatea egin behar izan zuten J. Angel Belaunzarán eta J. Krutz Aranburuk, biek 47 birla bota baitzituzten. Azkenean, Belaunzarán urrietarrak 3 tiralditako desentpatean 18 birla bota eta Aranburu olaberriarrak 17 bota zituen, beraz, brontzea Belaunzaránentzat izan zen.

Herriko txapelketa J. Antonio Montes Ostadarreko bolariak irabazi zuen (44 birla), Josean Lasa eta Josu Lasak baino lau birla gehiago botata.

Emakumezkoen mailan Rosa Santos hernaniarra gailendu zen Txaro Galán eta Maitane Egañare lasarteoriatarren aurretik. Santosek 28 birla etzanarazi zituen, Galanek 20 eta Egañak 15.

Emozio handiko sariketa

Maila guztietako trofeo eta opariak J. A. Montes antolatzaileak entregatu zituen, eta berezia izan zen Egaña eta Garciaren alargunei oroigarria eman zitzaizen momentua. Maria Dolores Solano eta Rakel Marinek bihotzez eskertu zuten detailea.

Sari berezirik ere izan zen atzokoa. Antonio Goenagak jaurtialdi batean zazpi birla



Saridun guztiek argazkia, behin txapelketa amaituta. Rakel Marin eta Maria Dolores Solano alargunak barne.

birritan bota zituenez, txapelketa osteko sariketan errekonozimendu berezia jaso zuen.

Bolari faltan

Jose Antonio Montes Ostadar SKT-ko bola-joko saileko arduradunak azaldu digunez, 2013-2014 denboraldi amaieran Euskal Herriko txapelketa izango da Lasarte-Orian.

Horregatik, gure herrian taldea osatu nahi du eta herritarrek animatu nahi ditu bola-jokoan parte hartzera.

Interesa duenak kirol guneko bolatokira hurbildu daiteke larunbatetan goizeko 11:00etatik 12:00etara.



Jendetza bildu zen Bolatokian, irudian J.A. Montes bola botatzen.

IGERIKETA.

Martin hirugarren itsas zeharkaldietan

Buruntzaldea IKT-ko masterrek eta herriko igerilariak ez dute atsedetik hartu udan. Izan ere, Gipuzkoako Distantzia Luzeko Ligan lehiatu dira buru belarri.

Master+ mailan Buruntzaldea IKT-ko Juan Vicente Martinek iaz eskuratutako hirugarren postua mantendu du. Senior mailan, Xabier Elizegi seigarren postuarekin egin zen.

Buruntzaldea-ko igerilariak

Getaria-Zarautz itsas zeharkaldian izan ziren Buruntzaldea IKT-ko igerilari gehien parte hartzen. Horien artean azkarrenak, senior mailan Ander Lazkanok 42 minutu eta 2 segundo; emakumezkoetan Alazne Egiazabal, 43 minutu

eta 57 segundorekin; Master kategorian Laura Igea, 52 minutu eta 53 segundorekin.

Azkenik, Master+ kategorian Juanvi Martin izan zen taldeko azkarrena 43 minutu eta 58 segundorekin laugarren postuan sailkatuz.

Txingudiko badiako zeharkaldian Buruntzaldea IKT taldeari dagokionez, Juanvi Martin izan zen lehiatzen bakarra. Proba honetan Juanvik laugarren postua mantendu zuen 35 minutu eta 50 segundotan eginez.

Paseo Berriko zeharkaldian Buruntzaldea IKT-ko bi master izan ziren. Laura Igeak seigarren postua lortu zuen, 55 minutu eta 59 segundotan amaituz. Bestetik Ramon Altu-

na aritu zen ibilbidea 57 minutu eta 31 segundotan osatuz.

Irlako Zeharkaldian olatu eta itsas zakarraren kontra ibili behar izan zuten igerilariak. Buruntzaldea IKT-ko Alazne Egiazabalek 49 minutu eta 37 segundoko denbora egin zuen; Laura Igeak, berriz, 58 minutu eta 3 segundorekin master mailan zazpigarren postuan sailkatu zen.

Kontxako badiako zeharkaldia izan zen azken proba. Honetan Juanvi Martinek hirugarren postua eskuratu zuen eta honekin batera Master+ kategorian sailkapen orokorreko eta ligako hirugarren postua.

Nesketan Alazne Egiazabal zortzigarren sailkatu zen.



Juan Vicente Martin, eskuineko lehena, Ligako podiumean. BURUNTZALDEA IKT

Elizegi seigarren

Hala ere, Buruntzaldea IKT-ko igerilariak gain, beste herritar batzuk ere izan dira itsas zeharkaldietan eta aipagarria da, Xabier Elizegik senior mailan lortutako 6.postua.

Getaria-Zarautz proban 45 minutu egin zituen Lasarte-

Oriako gazteak; Txingudiko proban, 36:36; Paseo Berrian, 46:09; Irlako zeharkaldian, 47:50 eta azkenik, Kontxako badiatan, 29:29.

Proba hauetan eskuratutako puntuei esker, sailkapen orokorreko seigarren postuan amaitu zuen Liga.

— Agenda —

Ostirala 27, 18:00etan, Okendo plaza



Worldkafa, aniztasuna lantzen

Lasarte-Oriako Udalak aniztasuna lantzeko tresna berri bat jarri du martxan, "Anitzen Sarea". Proiektu honen baitan, ostiralean Worldkafa ekimena burutuko da Okendo plazan. Kafe baten inguruan, proiektua azaldu eta Lasarte-Oriako kultura desberdinetako herritarrek haien bizipenak eta irizkiak emateko aukera izango dute. Honi esker, gure herrian dagoen egoaren diagnostia egin ahalgo da.

Lasarte-Oria

Musika

ZULO ARETOA
Ostirala 27, 21:00etatik aurrera
"Syr Trifulca Posse"-ren eskutik



Hipfunkbreaks saioaz gozatzeko aukera ederra.

Larunbata 28, 21:00etatik aurrera
"Inoren Eron Ni" eta "El Desvan del Macho" taldeek rock doinuak eskainiko dituzte. Ostean, "Man in the attack" eta "Prest dejota" dj-ek elektrojazzrock saioa eskainiko dute.

Udazken festa

ANTONIO BLAS PLAZA

Ostirala 27, 20:30etan
Zabaleta auzoko lagunek udazkenari ongi etorria egingo diote Udazken festarekin. Sardin janaz gozatzeko aukera paregabea.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Iraila amaiera arte
Ion Benitez eta Unai Azkarateren diseinu grafiko eta collage-en erakusketa ikusgai dago.



Maskotaren eguna

ATSOBAKARREKO PARKEAN

Larunbata 28, 16:00etatik aurrera
Maskotaren eguna ospatuko da Lasarte-Orian. Honetan erdialdetik atsobakarrera egingo den txakurrekin paseoa eta maskoten lehiaketa izango dira. Cani Sapiens-ek txakur obediencia erakusketa ere egingo du.

Usurbil

V. Topa eszenika

Tailerrak

POTXOENEA KULTUR ETXEA

Asteazkena 25, 16:30etik 19:30era
Oier Guillanek "Eszenarako idatzi, irudietatik abiatu (1)" tailerra eskainiko du.

Osteguna 26, 16:30etik 19:30era
Oier Guillanek "Eszenarako idatzi, irudietatik abiatu (2)" tailerra eskainiko du.

Ostirala 27, 16:30etik 19:30era
Maider Oartzabal Kukuka eskolako irakasleak "Dantza Garaikidea" tailerra eskainiko du.

Larunbata 28, 10:00etatik 13:00etara
"Mugimenduak hitz bihurtzen direnean, hitza arnasa, arnasa kolpe, kolpea gihar..." tailerra eskainiko du Miren Gaztañagak.

Larunbata 28, 15:30etik 18:30era
Ander Lipusek "Aktorearen tresnak" tailerra eskainiko du.

Tailer bakoitzaren prezioa 5 eurotako da. Izena ematea topaeszenik@gmail.com helbidean egin behar da.

Ikuskizunak

GAZTETXEAN

Asteazkena 25, 20:15ean
Jon Plazaola-ren antzezlanaren ikusgai izango da. Sarrera, 3 euro.

SUTEGI ARETOAN

Osteguna 26, 20:15ean
Begiradak taldeak "Balitzen hioa" antzezlanaren aurkeztuko du. Sarrera, 5 euro.

Ostirala 27, 17:30ean
Zuondoan proiektuak "Maddi eta Antton" antzerkia eskainiko du. Doako sarrera.

Ostirala 27, 20:15ean
Aixaixa taldeak "Arroxalik ere, amets egiten du" pieza laburra eskainiko du eta Bonbereneako antzerki taldeak, berriz, "Katiuskun erreinua" lana. Sarrera, 5 euro.



Larunbata 28, 19:00etan
Kukuka antzerki eta dantza eskolako lagunek "Dantzaz-Blai" ikuskizuna eskainiko dute. Ondoren, Miren Gaztañagak "STEREO" lana aurkeztuko du. Sarrera, 5 euro.

Larunbata 28, 22:15ean
Aldatzen laguntzen taldeak "Eskorbutu bat, berriz ere!" 15 minutuko pieza eskainiko du eta Oh, my god! taldearen "Zer duzu, Amy?" antzezlanaren ikuskerako aukera izango da. Sarrera, 5 euro.

— Herritarren txokoa —

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da irailaren 24an, asteartea, arratsaldeko 17:00etan.

Herriraren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, irailaren 27an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan irailaren 30ean, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Alboka Abesbatzaren entseguak

Alboka abesbatzak entseguak hasiko ditu. Herriko abesbatzak 16 eta 65 urte arteko herritarrek animatu nahi dituzte entseguetara hurbildu eta probatzera.

Ez da beharrezkoa musika ezagutzarik izan edo abesten jakitea.

Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitzete!

Kirol instalakuntzen neguko ordutegia

Udal kirol instalazioetan neguko ordutegia dago indarrean.

Kiroldegiaren irekiera ordutegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:30era izango da, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara, eta igandetan berriz, 9:00etatik 13:00etara.

Kirol Gunearen kasuan, ordutegia honakoa izango da; astelehenetik ostiralera 15:30etatik 22:30etara, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandetan 9:00etatik 13:00etara.

Galdutako arropa

Sorgin Dantzako entsegutan Landaberri BHI-n jendeak ahaztutako hainbat arropa jaso da. Hauek guztiak Ttakuneko bulegoan dago beraz galdu dutenek harrera orduan pasa daitezke jasotzera.

— Sarean —

Aditzak jokatzeko tresna sarean



Euskarako aditzak zaila dira ikasten eta baldintza edo agintera erabili behar direnean buruhauste eta zalantza ugari sortzen dira. Gaur egun, bada sarean buruko min hori saihesten lagunduko dizun orrialdea, aditzak.com.

Orrialdea bereiziki ikasle, itzultzaile, idazle zein irakasleentzat lagungarri izan daiteke. Hala ere, euskaldun guztiek noizbait erabiltzeko modukoa da.

Modu erraz eta bizkor batean euskal aditz-laguntzailea jokatzeko du. Segundo gutxi batzuk baino ez ditu behar adizki zuzena aurkitu edo egiaztatzeko.

Oso erraza da erabiltzen modua hautatu (indikatioa, ahalera, subjuntiboa, agintera), aldia (orain, lehen, baldintza), aditz mota (nor-nork, nor-nori-nork, etab.) eta pertsonak, eta berehala azaltzen da adizki egokia pantailan.

Mugikor desberdinetarako aplikazioak ere eskuragarri daude eta doakoak dira.

Zuen oharra jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Jone Miren Hernandez EHU-ko Gizarte Antropologiako irakaslea

“Pertsoneri buruz ari garenean denbora klabe bat da”

Lasarte-Oriako Udalak “Aniztasuna eta Elkarbizitza Lasarte-Orian 2013. Diskurtsoa eta Hautemateak” azterketa aurkeztu zuen maiatzean. Ikerketa honetan herritarrek batak besteengandituzten pertzepzioak aztertu ditu Udalak. Hartu-emanak nolakoak diren ondorioztatu zuten, herriko elkarte eta multzo desberdinekin lan egin eta kulturartekotasuna bultzatzeko.

Nerea EIZAGIRRE

Kulturartekotasuna modan dagoen kontzeptua da. Lasarte-Orian kulturartekotasuna lantzeko asmoz lehenik txosten bat egin zuen Udalak eta egun “Anitzen sarea” jarri du martxan hau lantzeko. Honen barruan, Worldkafek ekintza egingo da hurrengo astean. Jone Miren Hernandez herritarrek gaia landu du eta honen eta ikerketaren harira, harekin solasaldia izan dugu.

Zer da kulturartekotasuna?

Nik esango nuke maila teorikoan dagoen kontzeptua dela. Ez dakigulako ziur zer den, helburu bat den edo ez eta helburua bada nola garatu eta gauzatu. Nahiko kontzeptu abstraktoa dela esango nuke.

Mendebaldeko gizartearen azken boladan populazio mugimendua desberdinak direla eta, hainbat lekutan jende desberdina joan dela kokatzen. Desberdina esan nahi dudanean kultura aldetik ari naiz hizketan, jatorria, hizkuntza, sinesmenak, etab.

Honek tradizio luzea du, gizakiak beti mugitu dira. Baina momentu batean mugitze horrek eta elkartzeko horrek hainbat toki edo komunitateetan arazoak sortu ditu. Bat batean hori kezka bihurtzen da eta momentu horretan ikerlari edo politikari edo eragileak hasten dira horretaz kezkatzen eta fenomeno bera aztertzen.

Zein elementu nagusi daude kulturartekotasunean?

Alde batetik, kulturartekotasunaz hitz egiten dugunean, errealitate bat dago edozein herri edo komunitatean dagoena eta bestetik batzen diren gizakiak, haien kultura, sinesmen... haien errealitatea.

Eta helbururik ba al du kulturartekotasunak?

Horren azpian badago helburu bat dela jende desberdina nolabait harremanetan jarri, elkartrukea bultzatu, elkarren arteko harremanak, ezagupena... Baina urteetan

eta mendeetan nahiko modu simplean eman da.

Lasarte-Orian nola islatzen da egoera hori?

Lehenengo populazio mugimenduen eraginak duela hamarkada batzuk hasi ziren nabaritzen. Estatuko jendea etorri zen Euskal Herrira orokorrean eta konkretuki Lasartera hainbat lantegi zeudelako, besteak beste Michelin. Jendea behar zen lanerako eta orduan hor egon zen lehenengo bolada edo.

Azkenengo hamarkadan, hasi dira bestelako etorkin batzuk.

Baina ez dakit zein punturaino izan den kezka.

Udalak ikerketa bat egin du eta kultur desberdineko pertsonen iritziak jaso ditu...

Nik positiboki hartzen dut populazio mugimendu horien inguruan jendeak zein nolako diskurtsoa daukan, nola sentitzen den... jakitea eta alde desberdinetatik.

Komunitate edo herri batean dagoen giroa ere ikusteko balio du.

Interesgarria da sentipen, bizipenak jakitea. Kudeatu behar baduzu eta, kasu honetan, Udaletxeak edo bertan dauden tekniko edo zinegotziek elkarbizitza hori kudeatu behar badute, hau baita haien eginbeharreko bat, zein nolako giroa edo pertzepzioa dagoen jakitea interesgarria da. Gero ikusi behar da horrekin zer egin. Ez da inolaz gai erraza.

Ikerketan beste kulturekiko jarrera desberdinak daude la ikusten da...

Hor fenomeno kurioso bat gertatzen da, pentsatzen ematen duena.

Nik uste dut orokorrean mundu guztiak positiboki baloratzen duela beste kultura batzuk ezagutzea.

Bidaiatzea baloratzen da zerbait positibo bezala, aberasgarria kontsideratzen delako.

Besta gauza bat da hona etortzen direnean. Beste herri

batzuetako jendea datorrenean hori aldatzen da eta hori oso kuriozoso da.

Jendea hona etortzen denean errezeloak sortzen dira, kontziente garelako hemen errekurtso batzuk daukela mugatuak direnak, lana dela edo dirua edo dena delakoa.

Beraz, testuinguruak ere badauka eragina horretan. Ekonomia nola dagoen ikusi behar da... beste fenomeno batzuk ere aztertu behar dira.

Nahiko konplexua da. Nik hori uste dut egoera bat da non elementu asko kontuan hartu behar diren.

Eta batzuetan komunitatea bera jasotzen duena nola dagoen sozialki, ekonomiki... horren arabera beste batzuk etortzea ondorio batzuk sortu ditzake.

Hemengo kulturekiko jarrera ere aztertzen da ikerketan...

Bai. Izan ere, askok etortzen direnean ez dakite edo ez daukate informazio guztia. Gero etortzen direnean konturatzen dira hori ez dela zuzena.

Hori beti gertatzen zaigu, aurreiritzi batzuk ditugu zenbait lurraldeei buruz edo bere egoerari buruz eta iritsi arte ez dugu hango errealitatea benetan jasoko.

Eta gero zer gertatzen da, jakinda ere hizkuntza eta kultura bat dagoela, bertara iristean gizarte horretako kontrastea ezagutzen da.

Ikusten da hizkuntza hori zenbat erabiltzen den edo zenbateraino dagoen zabaldua, egin garrantzia duen gizartearen, maitatzen den... Eta nire interesaren edo bizipenaren arabera, gehiago joko dut hizkuntza eta kultura horretara.

Horregatik nik ere lehen aipatu dut, batzuetan ez dela bakarrik kanpokoak nola datozen, baizik eta herri bera nola dagoen.

Beraz, herriren egoera ere aztertu beharko litzateke...

Hori ere garrantzitsua da, kanpotik datorrena segituan jabetzen da nola dagoen egoera eta horren baitan jokatu dezake.

Gure egoeraren ahulezia nabarmen geratzen da oraindik, horrela delako hizkuntzaren egoera edo dena delakoa.

Horregatik besteari buruz hausnartu bai, baina gure buruari buruz ere egin beharko litzateke. Nola gauden prestatuak edo prest gauden beste komunitate batzuei gure egoera, gure hizkuntza, gure kultura erakusteko eta nola gauden gu gure buruarekin.

Zeintzuk izan daitezke kultura desberdinak batzeko moduak? Topaguneak?

Ez dakit zein nolako proiektuak sortu daitezkeen jendea batzeko.

Esate baterako, 60 edo 70. hamarkadan Lasarte herria ez zenean, herrian arazoak zeuden, eskolak falta zirelako edo medikua eta ura, hori zen oinarritzeko behar bat eta mundu guztia hangoak eta hemengoak momentu batzuetan batu

behar izan ziren horri aurre egiteko.

Honek laguntzen du bestelako harremanak sortzen, neurri batean, baina gaur egun gizartearen indibidualismorako joera dago.

Eta topaguneena izan daiteke abiapuntu bat, baina nik uste dut denbora behar dela. Zentzu horretan epe ertain edo luzerako perspektiba bat jarri eta gauzak egiten joan edo saiatu.

Gauza asko egin daitezke eta prozesua lagundu. Eta egongo da jendea errazago txertatzen dena prozesu horretan eta bere bizipen aldetik gehiago murgilduko dena. Baina uste dut batez ere, denbora behar dela.

Zergatik diozu hori?

Ez da hain erraza bi jatorri, hizkuntza, sinesmen desberdinetako pertsonak batu eta bakarrik topagune bat sortu duzulako harremanetan jarzteaz.

Helburuaren arabera, hori ongi egon daiteke. Elkartu dira, elkar ezagutu dute eta listo. Baina pertsona horiek elkarlanean jarri nahi badituzte...

Lasarten ikusi dena adibide gisa, zenbat hamarkada pasa dira eta oraindik Estatuak eta hemengo jendearen arteko gauzak hor daude. Eta pasa dira lau hamarkada, orduan pentsa. Pertsoneri buruz ari garenean denbora klabe bat da eta nik uste dut beharrezkoa dela.

Lan asko dago beraz egiteko...

Bai. Eta hasieran komentatutakoa, jakin behar da inguruan dagoen guztia ere, testuinguru ekonomikoa, soziala... nola joaten den.

